

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Aguraingo "Curtidos-Harresi" 49.1. egikaritze unitateko ituntze-batzarraren estatutuei

Alkatearen 2018ko azaroaren 30eko dekretu bidez, hasierako onarpena eman zitzaion Aguraingo "Curtidos-Harresi" UE/49.1. egikaritze unitateko ituntze-batzarraren estatutu proiektuari.

Espedientea hamabost egunez jarri da jendaurrean, haiek osorik argitaratuta 2018ko abenduaren 19ko ALHAOn (146. zk) eta banan-banan jakinarazita jarduketa sistemak eragindako jabeei. Hori horrela egin eta alegaziorik aurkeztu ez denez gero, Aguraingo Udalak, 2019ko apirilaren 3ko tokiko gobernu batzarraren erabaki bidez, behin betiko onetsi du Aguraingo "Curtidos-Harresi" 49.1. egikaritze unitateko ituntze-batzarraren estatutu proiektua.

Hori guztia aditzera ematen da, Hirigintzako kudeaketaren Arautegiak, abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuaren bidez onartutakoak, 162.4 artikuluan xedatzen duena betez.

Agurain, 2019ko apirilaren 16a

Alkatea

IÑAKI BERAZA ZUFIAUR